

**VII. ATALA  
BESTE ZENBAIT****Bilboko Portuko Agintaritza****Bilboko Portuko Agintaritzaren Ebazpena, erakundeko Lehendakariari eskumena eskuordetzeari buruzkoa.**

Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 16an egindako bileran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen aho batez:

1. Lehendakariari iruzurren aurkako plan bat onesteko eskumena eskuordetzea, Europar Batasunaren Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak emandako laguntzak izapidetzeko, eta arestian hartutako erabakiaren edukiari eta ondorengo garapenari eta gauzatzeari lotuta beharrezkoak diren izapideak eta dokumentuak formalizatzeko eskumena ematea.

2. Erabaki hori argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Bilboko Portuko Agintaritzaren webgune korporatiboetan eta egoitza elektronikoan.

Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.1. artikuluko c) atalean xedatutakoari jarraikiz. Haren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluan, hilabeteko (1) epean, aipatutako legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, edo zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi (2) hilabeteko epean, interesdunari ebazpen honen berri eman eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1 m) eta 46. artikuluekin bat 8.3. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, eta egokitzen jotzen den beste errekurtsoren bat jartzea gorabehera.

Santurtzin, 2021eko abenduaren 16an.—Lehendakaria, Ricardo Barkala Zumelzu.—  
Idazkaria, Juan Carlos Verdeal Pinto.

**SECCIÓN VII  
VARIOS****Autoridad Portuaria de Bilbao****Resolución de la Autoridad Portuaria de Bilbao sobre delegación de facultad a favor del Presidente del organismo.**

En la sesión del Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Bilbao celebrada el día 16 de diciembre de 2021, se adoptaron por unanimidad, entre otros, los siguientes acuerdos:

1. Delegar en el Sr. Presidente la facultad para aprobar un Plan antifraude en orden a la tramitación de las ayudas otorgadas por el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia de la Unión Europea, incluyendo la formalización de cualesquiera documentos y trámites que resulten necesarios relacionados con el contenido y posterior desarrollo y ejecución del acuerdo precedentemente adoptado.
2. Publicar el anterior acuerdo en el «Boletín Oficial de Bizkaia», en la Sede Electrónica y webs corporativas de la Autoridad Portuaria de Bilbao.

Contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa a tenor de lo dispuesto en el artículo 114.1 c) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, puede interponerse, potestativamente, de conformidad con lo dispuesto en sus artículos 123 y 124, recurso de reposición ante el Consejo de Administración de la Autoridad Portuaria de Bilbao en el plazo de un (1) mes, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos (2) meses, en ambos casos a contar desde el día siguiente a su notificación, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 8.3, en relación con los artículos 10.1 m) y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, sin perjuicio de que se formule cualquier otro recurso que se estime procedente.

En Santurtzi, a 16 de diciembre de 2021.—El Presidente, Ricardo Barkala Zumelzu.—El Secretario, Juan Carlos Verdeal Pinto